

"Atzo"
Agota Kristof
euskaratzailea: Eskarne Mujika
Alberdania / Elkar, 2003

Alberdaniak 1997an kaleratutako *Koaderno handia* esku artean hartzeko zorioneko okurrentzia izan zuenak gogoan izango du seguru asko Agota Kristofen izena. Nahiz eta garaian ez zen euskaraz gaur adina literatur itzulpen argitaratzen —gaurkoak gutxi izanik—, literatura euskaratua gaur baino are gutxiago irakurtzen zen arren, Eskarne Mujika Gallastegiren bigarren liburu itzuli honek izugarritzko estimua lortu zuen euskal irakurleen artean. Gaia eta kontatzeko moldea ezberdinak ziren, oso bestelakoak euskaraz orduan —eta orain?— argitaratzen ari zenaren aldean; baina, horretaz gain, Kristofen estilo aldi berean lehor eta sujerikor hori txundigarria, musikalki hipnotikoa gertatzen zen Mujikaren euskara aldi berean bizi eta eutsian. Egileak bere idatz-moldeaz:

"Oso da soila nire idazteko modua. Iluntzean idazten dut, eskuz, ez ortografiaren ez intrigaren ardurarik gabe. Istorioak eta elkarrizketak asmatu, eta koadernoan pilatzen ditut. Gero, desordena gehiegizkoa denean, idazmakinarean aurrean jarri, eta ordenatu egiten ditut. *Collage* moduko bat, muntaketa bat egiten dut, sarri laupabost aldiz errepikatzen diren eszenak izaten dira eta".

Koaderno handia (1986) frantsesez idazten duen hungariar honen trilogia bateko lehen eleberria da: beste biak *Froga* (1988) eta *Hirugarren gezurra* (1991) dira, euskaraz oraingoz irakur ezinak. Gaur aipatzen dugun *Atzo* hau 1995ean argitaratu zen jatorritzko edizioan. Trilogiako biki izugarriak ez dira hemen ageri, erloju-fabrika bateko langile emigratu baten bizimodua eta maitasun ezina kontatzen zaizkigu. Agota Kristof bera erloju-lantegi batean aritu zen beharrean, errepresio politikoaren beldur Hungariatik ihesi eta Suitzan finkatu zenean. Fikzioaren eta errealitatearen arteko loturaz, hala dio:

"Benetako historiak idazten saiatzen naiz baina, une jakin batean, historia jasanezina egiten da hain zuzen ere bere egiazkotasun hori dela eta; orduan historia aldatzea beste erremediorik ez dut, orduan dena edertzen dut". Kazetari batek, edertze horretaz sinesgogor (batzuen ustez, nekrofilia usaina darie haren lanei, eta etsipena eragiten), zera galdetu zion: "Benetan uste duzu dena edertzen duzula?". Eta berak erantzun: "Bai, errealitatea are okerrago da". Gero gehitu zuen: "Liburu bat ezin daiteke bizitza bat bezain tristea izan".

Liburua ederra da, eta tristea baino gehiago, izugarria. Testua biluzia da —egileak gorroto ditu deskribapenak, sentimentalismoa debeku da—, baina aberatsa: aszetikoa oro har, baina zantzu liriko ustekabekoa, edo lau berbazko astindu zorrotza bizitzaren zentzuaz beti gertu, beti zain.

"Ezinezkoa zait zuzenean ukitzen ez nauten gauzez idaztea. Behin, egunkari aleman batek zinemari buruzko testu bat eskatu zidan. Ezin izan nuen. Ez nuen ideiarik ere. Idazten dudanean, oso gogoeta gutxi egiten dut. Materiala hortxe dago, eskuragarri. Ezin izango nuke inolaz ere, esate baterako, literatur kritikarik idatzi".

Egunero, 2003-06-07